

**Sagardoaren Kultura
sustatzeko hitzarmena**

**Lanbide Heziketa euskaraz
egiteko aukera**

**Korrika datorrela ospatzeko,
Badok 15 jaialdia**

noaua



Argazkia: Ibai Aizreg

Ostiral honetan, Reunion Big-Band taldearen kontzertua frontoian

Soinurbil Musika Astea, bete-bete

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 17, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia 19.00etan / 2. deialdia 19.30etan

GAI-ZERRENDA:

- 1) 2014ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2015eko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditzen

Urko Aristi, Esperientzia Eskolan



Arbaso zubietar eta aginagarriak ditu Urko Aristik. Eguraldi kontuei buruzko hainbat bitxikeria partekatu zituen Esperientzia Eskolako kideekin.

Kazetari eta telebistako aurkezle ezagunak, eguraldiaren inguruko bitxikeriak partekatu zituen Esperientzia Eskolako kideekin, mar-

txoaren 3an. Baita bitxikeria pertsonaliki ere. Antza, arbaso zubietar eta aginagarriak ditu ETB-ko kazetari eta eguraldi gizonak.

Tokikom herri hedabide ez publikoek elkarteko lehendakari ere bada Urko Aristi. Artzabalgo ekitaldia Usurbilgo Esperientzia Eskolak antolatzen zuen.

Laburrean

Martxoaren 21ean, EHGAMek antolatutako afaria

laz bezala, txotx garaiko afaria Usurbilen egingo dute. Prezioa: 24 euro. Sagardotegia eta ekitaldiak deitu dituzten lekuetara joateko autobusa, 32 euroren truke. Ordainketak, martxoaren 10a baino lehen egin behar dira, kontu zenbaki honetan: ES35 3035 0063 82 0630030222.

Imanol Quilez argazkilaria erakusketa

Once23estudioko argazkilaria lan bilduma Artzabalen ikusgai, apirilaren 15era arte. Argazkiok ateratzeko behar den denborari erreferentzia egiten dio erakusketa izenak; "0.176 seg". Bilduma, "txuri-beltzeko 13 argazki osatuta dago".

#Gattunk-eko batzordeetan laguntzeko deia

Ehunka herritarrek emana dute izena, baina jende gehiagoren laguntza behar da: ekonomia eta arropa salmentan, osasun eta prebentzio batzordean, edo txosna batzordean esaterako. Denetarikoz dozena bat lan talde badira. Izen emateko: udarregi.com edo 943 36 12 16.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Uclada



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

Betaurreko (U)moreak

Umorea giza gaitasun bat da. Besteari barre egina-razteko gaitasuna, hain zuzen ere. Egunerokotasunean, ordea, ez diogu garrantzi handiegirik ematen. Ez zaigu iruditzen "gauza serioa" denik, adibidez, ekonomia edo politikarekin konparatzen badugu. Azken batean, zertarako balio du ba, umoreak, txorakeritarako ez bada? Uste baino gehiagotarako, erantzungo dizuet: ondo pasatzeko, errealtatea deskribatzeko, kritikatzeko, distantzia hartzeko, gauzak erlatibizatze-ko... eta zapaltzeko ere balio du umoreak.

- Hori denetarako?
- Bai, ba.
- Orduan ez da hain txorakeria izango...

Eta orain beste galdera bat egingo dizuet: zeintzuk dira zuen umoregile kuttunenak? Eta horietatik zeintzuk dira emakumeak? Gutxi, ezta? Zergatik izango ote da? Gai honen inguruan hausnartzen nabil azken aldian, eta hiru faktore azpimarratuko nituzke:

1. Alde batetik, AUKERA handiegirik ez dugu izan umorea egiteko. Historikoki umorea (beste alor asko bezala) gizonak egin dute. Gizonea izan da alor publikoa (garrantzitsua dena) eta emakumearentzat arlo pribatua (ezkutatua eta garrantzirik gabekoa). Arlo pribatu horretatik umorea egiteko atarraztea ia ezinezkoa izan da duela gutxira arte.

2. Bestetik, umorearen alorrean (ere) DOMESTIKAZIO bat jasan

dugu. Gizonaren ikuspuntutik abiatuz, zertaz (gizonek barregarri kontsideratzen dutenaz), noiz (egoki kontsideratzen dutenean) eta nola barre egin (neurrian, ahoa estaliz, algararik gabe) erakutsi digute, eta guk ikasi eta barneratu. Ondorioz, gure gaiak guretzat ere ez direla barregarriak barneratu dugu, eta gizonak egin dutela umorea.

3. Gaur egun (oraindik) umorea batez ere gizontasunetik sortzen dugu denok, gizon zein emakumeok. Hau da, gizonen ERREFERENTZIAK erabiltzen ditugu umorea egiteko, eta horren eraginez, emakumeentzat hurbilagoak diren gaiak ikusezinak izaten jarraitzen dute, eta umorea egiten duten emakumeak, oso espezie arraroa.

Azken urte hauetan emakumeak errekonozituagoak izan garenean, umorea egiten hasi eta gai honi buruzko hausnarketa (ere) egin behar dela konturatu gara. Nondik hasi, ordea? Lehen pausoa kontzientzia hartzea da, nire ustez. Hau da, gai honek duen garrantziaz jabetu behar dugu. Bigarrena, ekitea. Erreferentzia kulturalak, pertsonalak, linguistikoak eta emozional berriak behar ditugu alor honetan. Eta horiek erakitze-ko, emakumeok umorea egin behar dugu bai alor publikoan (bertsolaritzan, telebistan, antzerkian...) zein eguneroko bizitzan (norberaren lagun-taldean, etxean,...).

Eman diezaiogun baimena gure buruari gure buruaz barre egiteko eta jantzi BETAURREKO (U)MOMOREAK!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | **Idoia Torregarai** | Joxe Piñas

Herri programa lantzen ari da EH Bildu

Duela hilabete batzuk hasi zen EH Bilduko lan taldea "Hari gara" prozesua lantzen. Udal hauteskunderi begira, "herritarren eta eragileen iritziekin eta ekarpenekin Herri Programa Puntuz Puntu osatzea izango da lanetako bat. Horretarako legegintzaldi honetako balantzea egiten hasi ginen. Balantze hori ia ehun herritarrekin konpartitu genuen eta Herri Programarako ekarpenak jasotzen hasi ginen", EH Bildutik aditzera eman dutenez.

Herri programaren zirriborroa osatuta berriz ere, "herritarrekin konpartitzeko aukera



50 lagun elkartu ziren aurreko larunbatean, Udarregiko patioan.

izan genuen pasa den larunbateko mintegian. Zazpi lantaldetan 50 lagun aritu ginen ekarpenak, hausnarketak eta datorren lau urtetarako lehen-tasunak ezartzen".

Ibilbidearen hurrengo parada martxoaren 21ean izango dute, goizeko 11:00etan Potxoenean. Bertan, herri programa eta hau aurrera eramateko zerrenda erabakiko dira.

65 olio bidoi, Erriberatik gure artera

Nafarroa hegoaldeko oliba olio bidoiak erosteko Errigora bildunetik bideraturiko kanpainak erantzun bikaina izan du Usurbilen. Guztira, 65 oliba olio bidoi eskatu dituzue.

Aste honetan pasa jasotzera

65 bidoi horietatik, 39 oliba olio bidoi ekologiko eta 26 bidoi konbentzional.

Bidoiak eskatu dituzuenok aste honetan pasa behar duzue NOAUA!tik ordainketa egitera eta bidoiak jasotzera. Ostiral hau baino lehen (martxoak 13) pasa NOAUA!tik.

Santueneko udal jabegoko bi etxebizitza enkantera



Interesa dutenek bi etxebizitzak ikusteko aukera izango dute.

Usurbilgo Udalak enkantera aterako ditu Santuenea auzoan jabetzan dituen bi etxebizitza. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik zenbatzen hasita, eskaintzak aurkezteko 20 eguneko epea egongo da. Interesdunek, bi etxebizitzok ikusteko aukera izango dute, ostegun honetan, martxoaren 12an. Horretarako hitzordua eskatu beharko da aurrez, udaletxeko 943 371 951 telefono zenbakira deituta.

A. Etxebizitza, Santuenea, 17-1º A.

-Azalera: 50,00 m2.

-Irteera prezioa: 90.248,90 euro.

-Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

B. etxebizitza, Santuenea, 25-3º Ezk.

-Azalera: 59,27 m2.

-Irteera prezioa: 106.323,45 euro.

-Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

Aliriko zubia itxita, ostegunetik aurrera

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, "Usurbilgo saneamenduko urak Zubietako ponpa guneakin erabateko lotura izan eta Loiolako araztegiara bideratzeko, Ugaldeako sarreratik Aliriko zubi arteko ibilbidea osatzea falta da. Lanak aste honetan hasiko dira. Aliriko zubia itxita egongo da martxoaren 12tik martxoaren 27ra bitarte. Troiako pasabidea eta Aliriko zubiarteko ibilbidean ere lanean arituko dira eta zati hau epe batean itxita egongo da".

Andatzako larreen inguruko bilera

Ostegun honetan, martxoaren 12an, 19:00etan Potxoenean. "Aldundiko larreetako teknikariarekin batera, Andatzako larreen erabilpen aukeren azterketa egingo da. Gaiaren inguruan interesa duen orori zuzendutako bilera izango da", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

■ Martxoak 12 osteguna

■ Potxoenean, 19:00

■ Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Ika-Mika

Euskaraz biziko gara... aurrez aurre jarritz gero

Oztopoen gainetik... Euskaraz biziko gara zen Donostiako manifestazioaren leloa.

Ba nik nahita ere, saiatuta ere, ez dut lortzen euskaraz bizitzea. Adibideak mila, eta euskaldun guztiok ezagutzen ditugunak.

Ez dira oztopoak, erasoak baizik. Estrategia bat da. Dei dieziaiogun gauzei bere izenez. Ez dezagula geure burua engaina.

Urkijok hau Urkijok hura...Urkijok obsesioa du.... Barkatu baina Urkijo asko pasa dira hemendik mendeetan zehar. Ez da Urkijo....España da!! Baionako suprefetak hau, suprefetak hura....ez da suprefeta...Frantzia da!

Españan derrigorrez jakin beharreko hizkuntza da española. Frantzian hizkuntza ofizial bakarra da frantsesa.

Bortxako konkista odoltsuaren ondoren kolonizazioa hasi zen... 8 mende luze igaro ondoren konkistak eta kolonizazioak jarraitzen

du. Berriki irakurri dudana eta euskaldun guztiei gomendatzen dizuedan " Euskararen isobarak. Hamasei gezur handi eta koda bat" liburuaren aipu honetan argi dio zein den bi estatu horien helburua: "Gizarte okupatua kontrolatzea, bertako populazioa, hizkuntza eta kultura ordezkatzeko, amnesia kolektiboa eragitea eta bortxazko gertakarien bertsio berri bat eraikitzea."

Horretan ari dira bi estatuak beraien botere guztia erabiliz. Ez da Urkijo, ez da Suprefeta.

Guk aldiz ez dugu estatuaren botereirik. Izan genuen estatuaren boterearen zatitxo apur bat dugu Nafarroako foru komunitatea eta E.A.E. izendatu dituzten hauetan, baina beti ere menpeko boterea; eta pribilegioa izango balitz bezala saltzen digutena gainera! Frantziaren menpeko gure lurraldeak oraindik ere botere kuota txikiagoa du...

Eta guk, euskaldunok, botere apur hori

erabili eta adibidez E.A.E.-ko euskararen legea aplikatuz, legea betetzen ez duten saltoki handiei isunak jarri ordez, euskara erakargarri egin behar dugula esaten gabilta; edo dabilta batzuk. Euskara modernoa dela eta bizitzaren arlo guztietarako balio duela konbentzitu behar ditugula eskaldunak ez direnak.

Konbentzitzea, gustagarri egitea, ez dakienak ikas dezan baliabideak jartzea, etab. egin beharrekoa da zalantzarik gabe, baina guk ere geure estatuaren boterearen beharra dugu Euskara defendatzeko, hezkuntza defendatzeko, etab.

Bi estatu erasotzaileen aurrean jartzeko. Aurre egiteko. Aurrera egiteko.

Idatziazen sinatzaileak: Haritz Harreguy, Aithor Atseginolatz, Oxkar Santamaria, Onintza Garcia, Jexux Agirresarobe, Aitziber Elortza eta Aihert Goia.

Eusko Legebiltzarrak babesa adierazi die Urquijoren helegiteak jaso dituzten udalei

Otsailaren 24ko osoko bilkuran, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urquijok udalerrri euskaldunen aurka jarritako helegiteei loturiko mozioa aurkeztu eta onartu zuten aho batez, EH Bildu, EAJ-PNV eta Hamaikabat udal taldeek.

Euskara sustatzen jarraitze-ko konpromisoa hartzeaz gain, Urquijoren esku hartzea salatu eta Udalak jasotako helegitearen aurrean babesa eskatzen zioten Eusko Jaurlaritzari. Otsailaren 28an Donostian, milaka lagunek oztopoen gainetik euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu ostean, Usurbilgo eta beste hainbat tokietako udalek jasotako helegiteen aurrean eginiko babes eskaera eta Urquijok izandako jokabidearen salaketa, Gasteizko Legebiltzarrera heldu zen aurreko ostiralean.

EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen, "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Espainiako Gobernuaren ordezkaria egiten ari den euskararen erabileraren aurkako kanpainari buruz". Testua gehiengo osoz onartu zuten Legebiltzarrean, EH Bilduren eta EAJ-PNVren babesarekin.

Espainiako Gobernuaren ordezkariari eskatzen dio errespetatu eta bete dezala Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Testua gehiengo osoz onartu



Testua gehiengo osoz onartu da Eusko Legebiltzarrean, EH Bildu eta EAJ-PNVren babesarekin.

EUSKO LEGEBILTZARRA

"Legebiltzarrak berretsi egiten du euskaraz idatzitako dokumentuek lege-balio osoa dutela euskaraz hizkuntza ofiziala den lurralde guztietan eta edozein administrazio publiko-erentzat, Estatuaren periferiako Administrazioa barne"

zuten Legebiltzarrean, EH Bilduren eta EAJ-PNVren babesarekin.

Honela dio hitzez hitz, Usurbilen onartua izan den mozioak:

1. Legebiltzarrak berretsi

egiten du euskaraz idatzitako dokumentuek lege-balio osoa dutela euskaraz hizkuntza ofiziala den lurralde guztietan eta edozein administrazio publiko-erentzat, Estatuaren periferiako Administrazioa barne.

2. Ondorioz, Espainiako Gobernuaren ordezkariak euskaraz idatzitako akten auzian duen jokabidearen harira, Legebiltzarrak babestu egiten ditu hala nahi duten udalek aktak euskaraz egin eta administrazioetara bidaltzea eta baita ere Jaurlaritzak gai horretan abiatu dituen jarduerak.

3. Legebiltzarrak Espainiako Gobernuaren ordezkariari eskatzen dio errespetatu eta bete dezala Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.

Erabakitze eskubideari buruzko solasaldia

Ekainaren 20ko hitzorduaren aurretik, erabakitze eskubideari buruz, gaian sakontzeko hitzaldia antolatu du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak, martxoaren 27rako. "Gure Esku Dago dinamika erabakitze eskubidearen inguruan indarrak batzen jarraitzeaz gain, eztabaidan ere sakondu nahi du, erabakitze eskubidea gauzatuko dugun egunera begira hainbat kontu erabaki behar baita (zer galde-tu, non, nork, etab.). Askotan izan daiteke herritarren aurrean ematea soilik indarrak batzen ari garela, baina beste bide horri ere ekin nahi zaio, eta maila batean egiten ari da. Hitzaldia testuinguru honetan antolatzen da", Gure Esku Dago taldekoen esanetan.

Eta ekaineko ekitaldi erraldoia girotzeko Ehuntze Eguna maiatzaren 9an Usurbilen. "Ekainekoa prestatzeko mugarrria izango da herrian. Giroa berotzeko festa egun bat", antolatzaileek diotenez. Datozen ekitaldien agenda hemen:

Martxoak 27, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Erabakitze eskubidea". Hizlariak: Zelai Nikolas eta Gaizka Aranguren. Moderatzailea: Pello Zubiria.

Maiatzak 9, larunbata

■ Ehuntze Eguna Usurbilen.

Taldearekin hartu-emanetan

jartzeko: Ostiralero bilera irekia 18:30ean Potxoenean.

usurbilgureeskudago@gmail.com

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k
Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Sagardoaren kultura sustatzeko, elkarlanean



Martxoaren 3an sinatu zuten Sagardoaren Lurraldeari loturiko hitzarmena Hernaniko Udaletxean.

Sagardoaren Lurraldea markapean sartzea, Sagardo Bideak sortzea, Sagardoetxea Museoan parte hartzea eta ekitaldi berriak sortzea. Lau lan eremu hauen inguruan elkarlanean jardungo dute aurrerantzean, Hernanik, Usurbilek eta Astigarragak, hiru udalotako alkateek, Mertxe Aizpuruak tartean, martxoaren 3an Hernaniko udalbatza aretoan sinatu zuten hitzarmenari esker. Hiru urtetarako sinaturiko akordioak sagardoaren kultura sustatzea izango du helburu nagusia. Udalon esanetan, egitasmoak onura ekarriko dio inguruari. Herriek eta sagardoak irabaziko dutela diote.

Eskaintza zabaltzeko bideak

4 urteko prozesuaren ostean dator, martxoaren 3ko hitzarmen sinaketa. Aipatu moduan, Sagardoaren Lurraldean integratu, sustatu eta komertzializatuko da aurrerantzean, Astigarragarekin batera,

HITZARMENEAN JASOA

Sagardoaren Lurraldean integratu, sustatu eta komertzializatuko da Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo sagardo kulturalaren eskaintza turistikoa

Hernani eta Usurbilgo sagardoaren kulturako eskaintza turistikoa. Udal bakoitzak Sagardoaren Lurraldeatik kudeaturiko erreserben zentrala izango du, bere esperientzia eta sagardotegietarako erreserbak online sustatzeko.

Honez gain, bide ezberdinotatik jaso ahalko dugu eskaintza guztiaren berri:

- sagardoarenlurraldea.com
- twitter.com/sagarlur
- Facebook.com/Sagardoarenlurraldea
- Newsletterrak bidaliko dituzte.
- Promozio kanpainak bideratuko dituzte...

Sagardo Bideak sortzea

Astigarragako eta Santiagomendiko baserrien historia, bertakoen bizimodua, Santiago Bidea, eta sagardoaren kultura erakusten ditu Astigarragako "Santiagomendiko Sagardo Bidea" k. Bide hau erreferentzia gisa hartuta, Hernanin eta Usurbilen ere Sagardo Bideen sorrera sustatuko da. Eta hauek gauzatzean, hiru udalerrien arteko bideak lotu nahi dira.

Sagardoetxea Museoan parte hartzea

Astigarragan kokatua dagoen Sagardoetxea Museoan bere txoko propioa izango dute aurrerantzean, Usurbilek eta Hernanik. Etorkizunean, Sagardoetxera gerturatzen den bisitariak, hiru udalerriotako sagardoaren kulturari loturiko azalpenak jasoko ditu. Gainera, sagarra eta sagardoan berezituriko Sagardoetxeako Dokumentazio Zentroan jasota geratuko da, Hernani eta Usurbilgo sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko dokumentazioa. Eta dokumentazio hau guztia kontsultatzeko zerbitzua eskainiko da. Dokumentazio hau erabiltzeko eskuragarri izango dute hiru udalek.

Ekitaldi berriak sortzea

Horien artean, "Sagardoaren Lurraldea ezagutzuz" ibilaldia. Hiru udalerriak lotuko ditu eta urtero, apirilko azken igandean ospatuko da. Aurten, Astigarragan hasi eta Hernanitik igaro ostean, Usurbila helduko da, eta Usurbilen, iragarri dutenez, Sagardoetxeak prestatutako "Sagardogintza gure baserrietan" erakusketa irekiko da.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39

EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK

www.artzabaljatetxea.com

“Aro berri hau guztion artean garatu behar dugu”

Aro berria, Zero Zabor aroa ekitaldi ikus-kizunera joateko gonbita luzatzen ari da herritar eta eragileei egunotan, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak. Hitzordua, larunbat goizeko 11:30ean Sutegein. “Ikusentzunezkoen laguntzaz, hondakinen kudeaketaren ingurukoak, azken hamarkadan izandako gertaeren errapasoa egin, eta etorkizunera begira jarri nahi dugu, gipuzkoarrei ildo horretan urrats berriak egitera gonbidatuz”, antolatzaileen esanetan.

Larunbateko ekitaldian zer da islatu nahi duzuen?

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak: Legegintzaldia bukatzera doa eta balantzea egiteko unea da. Hauteskunde kanpainan sartu aurretik, kanpaina bat egingo dugu hilabete hauetan. Kanpaina honen baitan, Euskal Herriari oro har baina Gipuzkoari bereziki mezu bat helarazi nahi diogu. Azken 4 urteotan mugarri bat jarri baita. Zaborraren eta erraustegiaren aroan geundela sartu ginen legegintzaldi honetan. Eta zero zabor aroaren hastapenetan amaituko dugu. Inflexio puntu hori eman da.

Legegintzaldi giltzarria izan da.

Guk inflexio puntu zehatza jartzen dugu, errauste planta bertan behera utzi zen egun horretan. Baina honako hau, modu batean sartu eta bestela aterako garen legegintzaldia izango da. Aro berri batean sartu gara Gipuzkoan, hastapenetan gaude eta aro berri hau guztion artean garatu behar dugu. Gipuzkoaz ari garenean, jendarte osatzen duten sektore guztietaz ari gara, norbanako, gizarte eragile, erakunde, alderdi politiko, sindikatu, enpresa, unibertsitate eta abarrez. Gonbidapen zuzena eta zabala egiten ari gara arlo guztietako jendeari, azken finean haiek islatzen dutelako gizarte bere osotasunean. Guztientzat mezu bat dugu; aro berri batean sartu gara baina aro berri hori guztion artean garatu behar dugu. Guztiok dugu gure arloaren barruan gure ardura eta zer irabazia. Bakoitzak bere modura.



Sutegein elkartzeko deia egin du Zero Zabor elkarteak. Larunbateko bilkura 11:30ean hasiko da.

ZERO ZABOR ELKARTEA

“Aro berrian sartu eta esparrua markatu eta zabaldu behar dugu. Aldaketa ez dela mugatzen hondakinen bilketa eta tratamendura. Askoz ere zabalagoa dela aldaketa hori”

Aro berri honetan sakontzea izango da beraz, hurrengo legegintzaldiko erronka?

Legegintzaldi honen balantze positiboa egiten dugu. Baina bidea ez da bukatu, hasi egin da. Urrats handiak egin ditugula ikusarazi nahi dugu, baina beste asko egiteko daude arlo askotan. Askotan zero zabor lotzen dugu hondakinen bilketa eta tratamendurekin.

Haratago doa ordea?

Materialak kudeatzeko gizartearen antolaketa osoa sartu beharko litzateke eta hor egiteko asko dago; ikerketan eta garapenean, unibertsitatean, enpresetan bestelako zerbitzu eta produktuak eskainiz, erakundeetan hori guztia sustatuz eta arauak sortuz, hezkuntzan balioetan eta ikuspegi horiek belaunaldi berrietan txertatuz, hedabideak horren guztiaren berri emanez... Egiteko eta irabazteko asko dugu.

Nola baloratzen duzue, zenbait eragile politikok azken aldiaren erraustegia eraikitzeko agertu duten asmoa?

Argi probatu da halako azpiegitura bat ez dela beharrezkoa, eta ez dela komenigarria ikuspegi askotatik; ingurumen, osasun, ekonomia aldetik... Ez dago argudio bakar bat horren defentsa egiteko, errealitateari serio begiratzen badiogu. Praktikarekin frogatu da erraustegia ez dela beharrezkoa. Orain, atzera bueltarik ezin dugu onartu. Alderantziz, martxan jartzen hasi den beste eredu hori garatu behar dugu, guztiontzako onuragarria delako.

Larunbateko ekitaldira gonbidatzen ari zarete eragile eta herritarrek...

Ekitaldi arina planteatu dugu. Oinarri nagusia bideo proiektzioa izango da. Bideo honetan, hondakinen gaiak azken hamarkadetan izan duen garapena erakusten da, elkarrizketa eta irudi batzuen bidez. Bideo hori Usurbilgo Udalak diruz lagundu du.

Bestetik, Usurbilgo herritarrek gai honetan protagonismo handia izan dute. Behar izan den hor egon dira. Kasu honetan ez gatz lana edo ahalegina eskatzera, herritarrek merezi duten errekonozimendu ekitaldi horretan egoteko eskatzera baizik.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ELORZA
 OBRAK ETA
 ERREFORMAK S.L.

661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Badok 15 jaialdia, 19. Korrika datorrela ospatzeko

Astebete baino ez da gertatzen, zirrara eta emozio handia eragiten duen 19. Korrika abiatzeko. Zubieta, Usurbil eta Aginagara martxoaren 22an iritsiko da, eguerdi partean. Antolatzaileek hasiera batean iragarria zutena baino zertxobait beranduago, 13:41 aldera hartuko omen du lekukoa herri honek, Lasartetik Zubietako hipodromo aldera doan zubian. Eta ordubete inguru beranduago emango zaie oriotarrei, Aginagako Mapil parean.

Muxurbil antzerki tailerraren antzezlana

Herria girotzen hasteko, egunotan kalera irtendakoan, nonahi ikusiko dituzue 19. Korrika badatorrela iragartzen duten kartelak. Ohartuko zarete, kultur ekitaldi ezberdinen artean ospatuko da datorren edizioa; 19. Korrika eta #Kilometroak15 batuko dituen Badok 15 jaialdia antolatu baita.

Ikasleek emango diote hasiera eta amaiera Korrikari loturiko hitzorduei. Korrika Txiki ospatuko da martxoaren 20an Zubietako Eskolakoekin, eta 23an Udarregi Ikastolakoekin, Usurbilen. Tartean, asteburu bete ekitaldi. Martxoaren 21ean,



Ixabel Agirresarobek zuzentzen duen antzerki tailerrak Chejov-en antzezlana motzak eskainiko ditu martxoaren 21ean.

Ixabel Agirresarobe herritarrak zuzentzen duen Muxurbil antzerki tailerreko helduen taldeak antzezlana eskainiko du Sutegin: "Chejov-en bizpahiru antzezlana motz kontatuko ditugu. Klase sozialei buruzko kritikak jasotzen zituen bere antzezlana zaharrak dira. Gaztelaraz neuzkan eta euskaratu ditut. Gehienbat hizkera egokitu dugu", adierazi dio NOAUA!ri, Ixabel Agirresarobek.

Ordubete baino gutxiagoko emanaldia izango da. Irekia eta doakoa. Agirresarobek aurreratu duenez, "jendea antzezlana ikustera joan eta antzerkia nortzuk egingo duten ikusten badute, segituan esango dute

haiekin antzerkia egin nahi dutela". Ikustekoa izango da ziur. Chejov-en obra guztiak eskainiko ez dituzte, 2 edo 3 bakarrik, gehiagorako gogoz geratuko omen gara. Herritarrak antzezlana gozatzerako Sutegira hurbildu eta antzerki tailerrean parte hartzerako animatzen ditu Agirresarobek. "18 urtetik gorako antzezak falta ditugu. Gaztetxoaren taldea bada, juxtu samar osatua, hor ere animatu daitezela. Baina helduak batez ere. Ederki moldatzen gara", dio Ixabelek. Tailerrean izen emateko deitu 675 71 23 83 telefono zenbakira. Muxurbil antzerki tailerrekoak astero biltzen dira, bake epaitegi atzeko lokalean.

Martxoak 20, ostirala

■ 15:00-15:30 aldera, Korrika Txiki, Zubietako Eskola Txikian.

Martxoak 21, larunbata

■ 20:00 Chejov-en obrak Sutegin. Muxurbil antzerki tailerra.

■ Ondoren, afaria Udarregi Ikastolako jangela berrian. Sarrerak Aitzagan eta Txirristran salgai, 15 eurotan. 100 lagunentzako tokia. Menua: bakailao piper beteak, masailak saltsan eta gazta tarta. Sagardoa, ardoa, kafea. Trikitilariak girotuko dute afaria.

Martxoak 22, igandea

Goizean, trikitilari taldearen kalejira.

■ 13:41 Korrikaren lekukoa hartzea, Lasartetik Zubietako hipodromora doan zubian. Zubietatik Santuenera eta Santueneratik Kaxkora.

■ 14:00-14:10 aldera Kaxkoan.

■ 14:20 aldera Aginagan.

■ 18:00 Ibilaldi kulturala. Ondoren Iñorkiñak taldea Mikel Laboa plazan.

Martxoak 23, astelehena

■ 15:00etatik aurrera, Korrika Txiki Udarregi Ikastolako irakasle eta ikasleen eskutik. Amaiera frontoian, musika jaialdi batekin.

■ Ondoren, txokolate dastatzea, Etumeta AEK euskaltegiaren eskutik.

Korrika saioa eta gero erromeria, Iñorkiñak taldearekin

19. Korrika Egunean ere ekitaldi ezberdinak programatu dira. Korrika Kaxkora heldu aurretik, eta aldaketarik ez bada, trikitilari talde batek girotuko du herri erdigunea goiz partean. Korrika igaro osterako berriz, Kaxkotik ibilaldi kulturala antolatu da. Herriko ondareaz, kulturaz zertxobait gehiago ikasi, eta egunero igarotzen garen hainbat txokok atzean duten historia ezagutzeko parada emango digu, ibilbidean zehar egingo diren geldialdietan.

Ibilaldia festa giroan ospatu eta dantza batean amaituko da. Iñorkiñak taldekoen erromeria saioarekin, Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egingo balu, frontoian. Iñorkiñak, espreski, 19. Korrika eta #Ki-



Martxoaren 22an igandarekin, arratsalde partean Mikel Laboa plazan (euria egingo balu, frontoian).

lometroak15 ekimena bateratuko dituen jaialdi honetan emanaldia eskaintzeko osatu du herriko boskote honek: Mikel Alkorta (trikitixa eta abeslaria), Luken Arkarazok (kitarra eta abeslaria), Eneritz Agirrek (abeslari nagusia), Aroa

Etxeburuak (baxua) eta Jokin Irastorzak (bateria).

"Erromeria gorantz doa azken aldi. Bitxia zen herri honetan erromeria talderik ez izatea", adierazi dio NOAUA!ri Luken Arkarazok. Eta hutsune hori betetzera dator

Iñorkiñak, Korrika egunean. Euskal kanta ezagunak abesten eta dantzatzeko jarriko gaituzte, martxoaren 22an. "Euskal Herriko taldeek jotzen dituzten abesti ezagunenatarikoak joko ditugu", Alkorta aurreratu digunez. "Abesti zaharrak eta ezagunak kantatuko ditugu. Abestu nahi duenak abestu, dantza egin nahi duenak dantza egin eta tragoa edan nahi duenak emanaldiari begira egon dadila", Mikelen esanetan.

Iñorkiñaren esanahiaz

Eta ezin, taldekoekin izandako elkarrizketa, atentzia ematen duen izenaz galdetu gabe agurtu. Gana-duak egin beharrekoa egiten duenean garoa botatzen zaio gainetik eta etzateko jartzen zaizkion azpiak dira, Iñorkiñak.

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN ETA LANTOKIKO PRESTAKUNTZAN EUSKARA ERABILTZEKO AUKERA DAGO

Lanbide Heziketa euskaraz, aukera aparta eskualdean

Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako zikloak euskara hutsean egiteko aukera dago Buruntzaldean. Andoainen, Urnietan, Usurbilen eta Hernanin dago, hain zuzen, D ereduan ikasteko aukera. Matrikulazio datuak, gainera, baikor izateko modukoak dira. Urtetik urtera gehiago dira erdi mailako eta goi mailako zikloetan euskaraz ikastea aukeratzen dutenak.

Euskaraz ikasi eta lan munduan euskaraz aritu nahi duenari erraztasunak eman nahi dizkiote ikastetxe hauek; horregatik, hainbat ziklo D ereduan emateko apustua egin dute. “Helburua argia da: euskaraz ikasi nahi duten ikasleei aukera hori ematea”, dio Ainitze Blancok. Hernaniko institutuko euskararen normalkuntzan lanean dihardu eta dioenez, “Euskal Herrian egonda, euskara bultzatu eta indartu nahi badugu, ezinbestekoa ikusten dugu Lanbide Heziketa ere euskaraz ikastea”.

Ikasketak euskaraz egiteak, gerora lan munduan euskaraz aritzea laguntzen die. Honenbestez, lan mundua euskaratzearen erronka ere hartu dute ikastetxeek. “Askotan pentsatzen da lan mundua



Ainitze Blanco Hernaniko institutuko euskararen normalkuntzarako arduraduna eta Leire Gonzalez Hernaniko Seiher enpresako idazkaria.

erdalduna dela, baina ikasleei erakutsi nahi diegu ez duela zertan hala izan”. Horretarako, lantokiko prestakuntza euskaraz egin dezaten saiatzen dira, ikasleak enpresetara joaten direnean euskara ere erabili dezaketela ikusteko.

Hernaniko Seiher enpresan, esaterako, lehenengo hizkuntza euskara izaten saiatzen dira. Bezero asko kanpotarrak dituztenez, haie-



kin gaztelaniaz egin beharra daukate, baina bestela, barne komunikazioa euskaraz izan ohi dela dio Leire Gonzalez idazkariak: “Lan munduan euskaraz aritzea lan motaren eta merkatuaren arabera da. Dena den, euskaraz dakigunok euskaraz egiten dugu; baita praktiketara etortzen diren ikasleekin ere”.

Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaio gazteek ikas-

ketak euskaraz burutzea: “Zikloak euskaraz egitea langungarria da ikasleentzat. Lan munduan badaude hitz tekniko batzuk, euskaraz ikasi ez badituzu, ondoren erabiltzeko zail direnak. Gainera, gure hizkuntza eta gure kultura denez, lan mundura ere eraman behar da”. Modu honetara, aukera dutenek behintzat, lanean euskara erabili daitekeela ikusten dute.

Hala ere, ez da denek kasua hori izaten; praktikan euskara erabiltzea edo ez, bertako langileen arabera ere izaten baita. “Guk, ikastetxe bezala, D ereduko zikloetan lantokiko prestakuntza guztiak euskaraz eskaini beharko genituzke. Zer gertatzen da? Ikastetxetik kanpoko modulo bat izanda, ez dagoela gure esku”, dio Ainitzek.

Inkesta

Jon Urretabizkaia

Ikasketak: Erdi mailako Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Urnietako Salesiarretan. Praktikak: Seiher Img Sistemas Electricos S.L.



Hiztegiko hitz asko ikasi ditut erreminta eta material aldetik; baita lan munduan euskaraz moldatzen ere.

Zer moduzko esperientzia izan da lantokiko prestakuntza euskaraz egitea?

Ona, gustura aritu nintzen. Giroa oso ona zen lanerako eta lankide gehienekin euskaraz aritzen nintzen. Ama hizkuntzan beti errazago aritzen da bat. Gainera, euskaraz ikasita hiztegia aberasten da. Enpresa munduan euskara entzutea geroz eta arruntagoa den arren, atzetik eskoletan egiten duten lana ezin da galdu. Lanean guk ez badugu euskaraz egiten nork egingo du...

Euskaraz ikasteak garrantzia al du zuretzat?

Bai, handia. Betidanik euskaraz hitz egin eta ikasi izan dut eta orain ohi-tura hori aldatzea izugarri kostatuko litzaidake.

Zertan lagundu dizu euskaraz ikasteak?

Eneko Elozegi

Ikasketak: Goi eta erdi mailako zikloak, elektrizitatean. Urnietako Salesiarrak ikastetxean. Praktikak: Electricidad JNA S.Coop eta Talleres Electricos Andoain.



Euskaraz ikasteak garrantzia al du zuretzat?

Bai, nire ama hizkuntza euskara delako eta erdaraz eginez gero zailtasunak ikusten ditudalako.

Zertan lagundu dizu euskaraz ikasteak?

Ulermenean eta adierazteko garaian errazago egiten zait euskaraz aritzea.

Zer moduzko esperientzia izan da lantokiko prestakuntza euskaraz egitea?

Ona, gauza berriak ikasi ditudalako. Dena den, ez ditut guztiz euskaraz egin, langile bat baino gehiagorekin gaztelaniaz hitz egin beharra nuelako.

Nire ustez, ez da abantaila bat, eskubide bat baizik. Euskara gure hizkuntza da, eta lanean ere gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea dugu.



11 aukera,
11 Lan

2015 / 2016

Lanbide heziketa euskaraz

BURUNTZALDEAN
LEIZARAN Institutua (Andoain)
ESCIVI (Bideo eta Zine Eskola, Andoain)
LA SALLE-BERROZPE (Andoain)
HERNANI BHI
URNIETAKO SALESIAARRAK
USURBIL GLHBI

ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOA	HEZIKETA ZIKLOAREN ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	BURUNTZALDEAN	LEIZARAN Institutua (Andoain)	ESCIVI (Bideo eta Zine Eskola, Andoain)	LA SALLE-BERROZPE (Andoain)	HERNANI BHI	URNIETAKO SALESIAARRAK	USURBIL GLHBI
HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Instazio elektrikoetako laguntzalea Grafikagintza 			B				B
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio Kudeaketa 							D
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	<ul style="list-style-type: none"> Instalazio Elektriko eta Automatikoak 						B	D
FABRIKAZIO MEKANIKOA	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioa Soldadura eta Galdaragintza 				B			D
GRAFIKAGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> Grafikagintzaren produkzioa 						B	
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Mantentze-lan Elektromekanikoa Hozteko eta Giralzako instalazioak Beroa Sortzeko Instalazioak 				D	B	B	D

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOA	HEZIKETA ZIKLOAREN GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	BURUNTZALDEAN	LEIZARAN Institutua (Andoain)	ESCIVI (Bideo eta Zine Eskola, Andoain)	LA SALLE-BERROZPE (Andoain)	HERNANI BHI	URNIETAKO SALESIAARRAK	USURBIL GLHBI
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio eta Finantzak 						B	D
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	<ul style="list-style-type: none"> Mantentze-lan Elektronikoa Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak Automatizazioa eta Robotika Industriala 				D	B	B	D
FABRIKAZIO MEKANIKOA	<ul style="list-style-type: none"> Fabrikazio Mekanikoko Diseinua Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa 				D	B	D	D
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Instalazio Termiko eta Fluidoaren Mantenimendua 							D
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK	<ul style="list-style-type: none"> Gizarteratzea Animazio Soziokulturala eta Turistikoa 			D				
SOINUA ETA IRUDIA	<ul style="list-style-type: none"> Ikus entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa 							D
GRAFIKAGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> Argitalpen diseinua eta produkzioa 						B	



Buruntzaldeko ondoko eskualdeetan dauden lanbide heziketa zentroetako informazioa baino ez dugu txertatu. Informazio gehiago topatuko duzu webgune hauetan: www.ikaslangipuzkoa.eus | www.hetel.org

“Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feministarantz”



Matrakak taldekoek idatzi bat irakurri zuten. QR kodearen bidez ikus daiteke adierazpenaren bideoa.

Martxoaren 8an Matrakak taldekoek Mikel Laboa plazan buruturiko elkarretaratzeko hautatu duten leloa duzue, baita elkarretaratze amaieran egun honen inguruan antolatzaileek egin zuten irakurketako aipamena ere. Herritar talde bat bildu zuen hitzorduan, egungo sistema kapi-

talista heteropatriarkalak bizi duen krisi sakona nabarmendu nahi izan zuten.

Besteak beste, bereizkeria gainditzeko Euskal Herriak proiektu feminista bat behar duela aldarrikatu zuten. Kurdistanetik aurreko igandean bertan abiatzekoa zen Emakumeen Mundu Martxarekin bat egin eta iraila amaieran, aipatu

ekimena Euskal Herrira helduko dela gogorarazi zuten. Azken asteotan Euskal Herrian izan diren eraso sexistak salatu zituzten. Larunbatean 21:00etan Hernaniko plazatik abiatuko den manifestaziora joatera deitzen dute. Mobilizazioak txotx garaian izaten diren sexu erasoak salatu asmo ditu.

Beteberritzen prozesuan parte hartzeko deia

Eskualdeko eragileak berrikuntza sozialaren arloan trebatzeko prozesua abiatuko dute Beterriko Garapen Agentziak eta Elhuyar Aholkularitzak. Prozesuan zehar, eskualdeko 10 proiektu ebaluatuko dira. Bost lan saio antolatu dituzte martxotik ekainera bitartean. Beteberritzen izeneko ekimen honen lehen hitzordua, ostegun honetan, martxoaren 12an, 10:30-13:00 artean, Andoingo Urigain Etxean. Eragile nahiz interesa duen orori zuzenduriko prozesuan parte hartu nahi dutenek, deitu 943 25 63 47 edo idatzi admi.beterri@hernani.eus

Persepolis proiektzioa, bertan behera

Martxoko kultur agenda eta karreteletan, martxoaren 22rako "Persepolis" film emanaldia iragarria zuten Matrakak Taldekoek. Baina egun berean 19. Korrika eguna ospatuko denez, proiektzioa bertan behera uztea erabaki dute.

Hitza emanez, omenaldia herriko emakume baserritarrei

Hunkigarriak, Martxoaren 8an Sutegira bertaratu zirenei barruraino heldu zitzaizkien ahotsak, hitzak, bizipenak, oroitzenak, hausnarketak. Orain arte isilpean, ezkutuan zirenak, aurreko igandetik entzunak, aitortuak eta omenduak ditugu. Nekazari lanean, abereak gobernatzan, azoketan saltzaile, etxeok hezi, elikatu eta zaintzen, balore eta ohituren transmisore... Aitortu gabeko zenbat eta zenbat lan egiten duten. Hori eta askoz gehiago egin dute emakumeek historikoki, Euskal Herriko baserriak gaur arte zutik mantentzeko. Baserrietako "zutabe eta helduleku" izan dira emakumeak betidanik, Mertxe Aizpurua alkateak igandean Sutegin zioenez.

Aurtengo Martxoaren 8 hau, emakume baserritarrak omentzeko eguna izan dugu Usurbilen. Eta ome-



“Lurra, lana, izana. Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak” dokumentalaren DVDA etxe guztietan banatuko da.

naldirako, zer hobeto, hitza protagonistei ematea baino. Emakumeen Egunean estreinatu zuten Sutegin, “Lurra, lana, izana. Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak” dokumentala. Usurbilgo Udalak 2013an eginiko beka deialdi batetik datorren proiektua da.

Jende ugari bete zen Sutegin

Kultur etxeko auditorioa bete zuen proiektzioa, emakume baserritarren

omenaldi txalotuan bilakatu zen. Egitasmo hau bideratu dutenen aldetik, Udala eta dokumentalaren egileen partetik, esker hitzak baino ez zituzten izan, proiektua gauzatzen lagundu dutenentzat, eta noski, modu berezian, dokumentalean, nahiz oro har, egitasmoan parte hartu duten emakume baserritarrentzat. “Eskerrak dokumentalean parte hartu dutenei, esperientzia herritarrekin partekatzeagatik”, zioen Enara Arbizu, pare-

kidetasun saileko zinegotziak.

Laster, etxean jasoko duzue

“Plazerra izan da Usurbil eta bertako emakume baserritarrak ezagutzea. Asko ikasi dugu beraiengandik. Gauza batzuk guretzat gordeko ditugu, beste batzuk dokumental eta liburuan islatuak aurkituko dituzue”, gaineratu zuen dokumentalaren egileetako batek, Maitane Arnaizek. Herriaren memoriarako betiko gertatuko dira emakume hauen ahotsak.

Sutegin estreinatu berri den dokumentala laster izango duzue eskuragarri. Udalak etxetzat banatzeko asmoa du doan, udaberri honetan. Ikus-entzunezko lana halerre, Maitane Arnaizek eta Leire Urkidik egin duten proiektuaren zati bat da. Usurbilgo emakume baserritarren inguruko liburu bat ere prestatu baitute. Atzerapenik ez bada, udaberriaren kaleratuko da.

Gazteek berdintasunaz eztabaidatzeko materiala sortu du Elhuyarrek

Bizenta Mogel izan da Martxoaren 8ko ekimene-
tako protagonistetako bat. Bai Yolanda Arrietak mar-
txoaren 6an liburutegian eskai-
ni zuen hitzaldi-tailerrean, bai-
ta egun berean, ordu batzuk
lehenago Elhuyarren aurkeztu
zuten proba pilotuko ere. “Bi-
zentaren lumak” izena jarri
diote hain zuzen, parekideta-
sunaren inguruan sortu duten
egitasmo berriari. Gazteen
artean parekidetasunaz ezta-
baidatzeko materiala sortu du
Elhuyarrek. Kanpora zabandu
baino lehen, eta Martxoaren
8a ate joka zutela, prestatu
duten materiala probatu nahi
izan zuten lantoki barruan an-
tolatu zuten eztabaida gunean.
Edukiek lehen testa gainditu
dutela aipatu digute.

**NOAUA! Esperientzia pilotua zer
moduz joan da?**

Aizpea Otaegi Mitxelena: Me-
tologia eta mekanika eza-
gutzen genituen. Berritasuna
edukia, sortu dugun materiala
bera zen; istorioak, eztabaida
gaiak, kontzeptuak... Horiek
ulertu dira egokiak zirela, jen-
deak lotu ditu bere kezkekin.



Martxoaren 6an Bizenta Mogeli buruzko hitzaldi-tailerra eskaini zuen Yolanda Arrietak Sutegiko Udal Liburutegian. Elhuyarrek aldiz, “Bizentaren lumak” izeneko ekimena abiarazi du.

AIZPEA OTAEGI

“Buruntzaldeko udalekin hitz egin nahi dugu ia zer aukera ikusten duten material hau Buruntzaldean bizi diren gazteekin probatzeko”

Gertatzen dena da berdinta-
sunaren gaia, oso gai zabala
da eta zailtasun bat da hori.
Oso giro onean joan da eta oso
ekarpen interesgarriak egin

dira. Ariketa bezala oso ondo
dago.

**Zer berezitasun ditu sortu du-
zuen materialak?**

Dinamika edo metodologia da
ekimen honen interesgarri-
na. Gai baten inguruan ezta-
baidatzeko oinarri bat ematen
digu. Oinarri hori landuta
dago gazteek izan ditzaketen
bizi esperientzia eta kezke-
tan. Helburua da nolabait,
gazteek materiala irakurri edo
erabiltzen duten neurrian, be-
raiek identifikatuak sentitzea
fitxetan jasotzen diren egoera
edo kezkekin. Berdintasunari

buruz eztabaidatzeko aitzakia
bat da.

Ze eztabaida gai ater dira?

Gure taldean asko hitz egin
da arau sozialari buruz. Arau
sozialek duten pisuaz, ze zai-
la den arau sozialetatik irte-
tea, berdintasunean bizi ga-
ren sentazioa oso zabaldua
dagoela, batzuetan zaila dela
gure kontraesanak eta oro har
gure inguruan ikusten ditugu-
nak ikusaraztea, eta jendeak
ere partekatzea. Batzuetan oso
modu pertsonalean hartzen di-
rela berdintasunaren inguruan
egiten ditugun hausnarketak
eta eraso gisa bizi direla.

**Ze bide eman nahi diozue egitas-
moari?**

Gure asmoa Buruntzaldeko
16 urtetik gorako gazteekin
probatzea da. Buruntzaldeko
udalekin hitz egin nahi dugu
ia zer aukera ikusten dituzten
material hau Buruntzaldean
bizi diren gazteekin probatze-
ko. Oso interesgarria litzateke
bestalde, gazte batzuk honetan
trebatzea gero beraiek
eztabaidetako bideratzaileak
izan daitezen.

“Ongi etorri” esan die Usurbilgo Udalak bizilagun berriei

Ongi etorria eman nahi izan
zuen Usurbilgo Udalak mar-
txoaren 2an, azken hilabete
hauetan udalerrri honetan errolda-
tu diren herritarrei. Estreinakoz, eta
Potxoenean egindako harrera bile-
ra baten bueltan. Udal ordezkariak
eta erroldatu berri diren zenbait
herritar bildu zituen ekitaldiak.

Udalaren partetik, zoriontasuna
eta etorkizun oparoa izateko desioa
helarazi zitzaizkien usurbildar berriei.
Udalerrria aurkeztu zitzaizkien, ia
Udalak kaleraturiko “Ongi etorri”



Usurbilen erroldatu berri diren herritarrekin batu dira udal ordezkariak.

baliabideen gidan jasoak dauden
zerebitzuak baita. Eta garrantzitsue-

na, elkar ezagutu eta harremanak
estutzen hasteko aukera izan zuten

ekitaldira gerturaturikoek.

Elkarbizitza erraztea

Martxoaren 2ko harrera bilera, bil-
kura erronda baten hasiera baino
ez da. Aurrerantzean, sei hilean be-
hin, Usurbilen erroldatu berri diren
herritarrei harrera egin asmo die
Udalak. “Ekimen berri honen hel-
buruak, elkar ezagutza sustatzea,
harreman berriak sortzeko aukerak
zabaltzea eta herrian elkarbizitza
erraztea lirateke, besteak beste”,
Usurbilgo Udaletik azpimarratu
duten.

Hezkuntza zikloa osatzea, Zubietako Eskola Txikiaren hurrengo erronka



Otsailaren 28ko inaugurazioa eskertza ekitaldi bilakatu zen. Irudiak: Haritz Arrizabalaga.

Irekita bakarrik ez, orain ofizialki inauguratua dago Zubietako Eskola Txikia. Otsailaren 28an ospatu zen ekitaldia. Eusko Jaurlaritza, Donostia eta Usurbilgo Udalak, Zubietako Herri Batzarra, irakasleak, gurasoak eta haurrak bildu zituen. Instalakuntza berriak ezagutzeko aukera egon zen. Bertsoek, joko garbiak, hamaketakoak eta eskolak izan duen bilakaera erakusten zuen argazki proiektzio batek girotu zuen hitzordua. Eskertza ekitaldia izan zen. Eraikin berriarekin, 331,68 metro handitu da Zubietako Eskola.

388.663 euroko inbertsioa bideratu dute erakundeek lan hauetara. Eusko Jaurlaritzak udan abiatu eta urte hasieran amaitutako obraren %60 ordaindu du, Donostiako Udalak %40a. 43 haur eta 35 familiek osatzen dute, hezitzaileekin batera, Zubietako Eskola Txikia.

Erakundeetako ordezkarien adierazpe-

nen tartean, eskertza eta zorion mezuak nagusitu ziren. "Une zailak bizi izan ditugu, baina zorionez lortu dugu eskola berria izatea", zioen, eskolako zuzendari Rosa San Romanek. Urteetan eginiko borrokaren emaitza izan dela nabarmentzen zuen Mertxe Aizpuruak, Usurbilgo alkateak. Eta ikasgai ona izan dela ikustea gauzak lortu daitezkeela, herri bezala auzolanean jarduten bada. Zubietako herria bizirik mantentzeko, eskola tresna ezin hobea zela nabarmentzen zuen Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak. Eskola Txikiko metodologia defendatu zuen. Eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari Gema Gonzalez de Txabarrik eraikina bera Gipuzkoara esportatzeko modukoa iruditu zitzaion. Etorkizunerako eredu gisa ikusten zuen.

Haurrek erdibidean amaitzen duten hezkuntza zikloa osatzea dute zubietarrek, hurrengo erronka.



Zubietan, Usurbil eta Donostiako ordezkariak hartu zuten parte Eskola Txikiko inaugurazio ekitaldian.

Tipi-Tapako sarituak



150 euroko erosketak balea: Gaizka Maiz. Zenbaki saritua: 1.029.



Txiribogako 2 laguntzako afaria: Alberto Pikabea. Zenbaki saritua: 3.737.

Eskubaloi zozketa

Marijo Curiel izan da, Usurbil KEko errifa zozketako azken saritua. 7.424 zenbakiarekin bi laguntzako afaria irabazi du, Iruin sagardotegian.



Andoaingo Piano Jaialdian sarituak

Zumarte Musika Eskolako ikasleek Andoaingo Piano Jaialdian hartu zuten parte. Zumartek aditza eman duenez, emaitzak honako hauek izan ziren: "Pello Ibargoien, Uxue Mindegia eta Ainhoa Rodriguezek zilarrezko domina lortu zuten eta Nahia Francok brontzezkoa". Zorionak denei!



35 mendizalek osatu zuten Gorriti-Tolosa ibilaldia



Andatza Mendizale Elkarteko kideek Gorriti-Tolosa ibilaldia osatu zuten aurreko igandean. Taldearen argazkia atera zuten Ulizar mendiaren gailurrean. "35 mendizaleok eguraldi ederrarekin gustura egin dugu ibilbidea".

Victor Gonzalez, arrantzale onenen artean

Azken asteotan Leitzarar, Araxes eta Agauntza ibaietan jokatu den Euskadiko Arrantza Txapelketan hirugarren postuan amaitu du Victor Gonzalez herritarrak, Angel Machorekin batera. Emaitza honekin, Espainiako Txapelketarako sailkatu da usurbildarra. Euskal Selektzioarekin eta banakako txapelketan parte hartuko du Gonzalezek, uztailean Leonen ospatuko den lehiari.



Euskadiko Txapelketan hirugarren izan da.

Kirol eskaintza Oiaro kiroldegian

Entrenamendu funtzionala
(Crossfit, tabata)

Astelehena-asteazkena. 17:00-17:50.

Haurdunentzat gimnasia urretan

Asteartea-osteguna. 15:00-15:50.

Igeriketa entrenamendua

Ostirala. 19:30-20:20.

Stretching-luzaketak

Astelehena-osteguna. 9:15-10:05.

Informazio gehiago: Oiaro kiroldegiko

Facebook-en, 943 372 498.



Udarregiko ikasleak, Hernaniko ibilaldi neurtuan



Andatza Mendizale Elkartekoak Gorriti aldean ibili ziren, eta Udarregiko ikasle batzuk Hernani partean. "Ibilaldi neurtuan parte hartzera joan ziren. Eguraldi oso ona egin zuen eta primeran ibili ziren", aditzera eman digutenez.

Es kubaloi partidak Oiardon

Martxoak 14, larunbata

09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Langile A
09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5C-Udarregi 5B
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6A-Urnieta 6A
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6C-Udarregi 6B
11:30 Infantil neskak: Udarregi A-Ikus Elgoibar
13:00 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Aloña Mendi
16:00 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Bidasoia Irun
17:45 Kadete neskak: Usurbil K.E.-Leizaran B
19:30 Senior neskak: Usurbil K.E.-Aiala B ZKE

Martxoak 15, igandea

11:30 Senior mutilak, 1. Territoriala:
Usurbil K.E.-Aloña Mendi

Futbol partidak Haranen

Martxoak 14, larunbata

10:00 Alebin neskak:
Udarregi 6A-Urnieta A
10:00 Alebin neskak:
Udarregi 5A-Udarregi 6A
11:30 Infantil mutilak:
Usurbil-Orereta A
16:00 Ohorezko Maila:
Usurbil FT-Anaitasuna
18:30 Jubenil Maila:
Usurbil FT-Amaraberri

Martxoak 15, igandea

10:00-13:00 Futbol Eskola: Usurbil FT-Beti Ona

 **TAXI**
24 h
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

**ESKAIOLA eta
PLADUR**
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Neska eta emakume bat bilatzen da pisua konpartitzeko. 250 euro + gas-tuak. Kale Nagusia. 606642161

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosi nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariek) eta garajea (2 kotxe-erentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an gutzit berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu bat alokairuan, 3 logela, bi komuna, jangela, saloia, sukaldea, dena kanpora, garajea eta trasteroa. San Inazio kalea. 696122533 Josune

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Itxakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, gutzit kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia, sukaldea, dena kanpora begira, garajea (marra) eta trasteroa San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiriek. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezin角度 edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filofsosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrek zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papela. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezela, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prententzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.



Zorionak Julen! Otsailaren 14ean 10 urte bete zenituen. Muxu handiak familia guztiaren partez.



Zorionak Oihan! Martxoaren 11n 7 urte egin dituzu. Muxu asko etxeko guztien partez.



Zorionak lera! Gure etxeko tximeletak, martxoaren 11n 7 urte bete



Zorionak Nahia! Martxoaren 3an lau urte bete zenituen, zorionak. Etxekoen partez muxu asko.



Zorionak Garazi! 17an 7 urte beteko dituzu! Muxu handi bat pottoli ama, aita eta Uxueren partetik!!

ditu. Zorionak eta txokolatezko 7 muxu handi handi, Aizpea, Jon eta familia osoaren partez.



Zorionak bikote! Martxoaren 15ean urteak beteko dituzue. Muxu handi bat etxekoen partez!

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziakin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gaztee-kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin.

619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 [zaro])

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

BESTELAKOAK

Usurbilgo, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke azienda jartzeko. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohetuek salgai. 70 euro. 655 731 915.

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko ditut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkietan. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo baba-rrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, libururak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Suteji Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Martxoak 12-martxoak 22

Osteguna 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 16 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 17 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Asteazkena 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 19 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 20 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 21 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Agenda martxoa

13 ostirala

- XI. Soinurbil: Reunion Big-Band Taldea. 20:00etan frontoian.

14 larunbata

- Alebin eta infantil mailako bizikleta lasterketa. 16:30ean Artzabal aurretik abiatuta.
- Kontzertu gaua, Usurbilgo Gaztetxean. Kezka, Malta (Zarautz).

15 igandea

- XI. Soinurbil: Legazpiko Musika Banda. 11:30 Kalejira. 12:30 Emanaldia frontoian.

Igandera arte, Musika Astea



Ostiral honetan, Reunion Big-Band taldea frontoian.

Zumarte Musika Eskolak, Usurbilgo Udalarrekin elkarlanean antolaturiko XI. Soinurbil Musika Asteako ekitaldiak, igandera arte:

Martxoak 11, asteazkena

- 18:00/19:00 Organoaren erakustaldia Salbatore Elizan. Sarrera: doan.

Zehaztasunak: "Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen. Cavallé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu".

Martxoak 12, osteguna

- 19:00 Elgoibarko Musika Eskolarekin trukaketa Sutegin.

Zehaztasunak: "Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak Usurbilen izango ditugu, bertan ikasitakoaren emaitza erakutsiz".

Martxoak 13, ostirala

- 20:00 Reunion Big-Band Taldea frontoian. Zehaztasunak: "Reunion Big Band Europako hainbat tokitatik etorritako eta Euskal Herriko Goi-Mailako Musika ikastegian (Musikene) ikasitako hogeitabat musikari gaztek osatutako jazzeko formazio handi bat da. Swing tradizionaletik hasi eta egungo jazzeko joera berrietara arteko errepertorioa landu dute, musika latinoa eta funka ahaztu gabe".

Martxoak 15, igandea

- Legazpiko Musika Banda. 11:30 Kalejira. 12:30 Emanaldia frontoian. Zehaztasunak: "Legazpiko herrian ez ezik, gure artean oso ezagunak diren beste ekitaldietan ere parte hartu izan du Legazpiko Musika Bandak. Usurbilen zuzenean entzuteko aukera izango dugu".

Datozenak

NOAUA! Kultur Elkartearen batzarra, martxoaren 17an

Urteko batzar nagusirako gonbita luzatzen dizuegu NOAUA! Kultur Elkarte-ko bazkideoi. Martxoaren 17an izango da aurrekoa, asteartez, Potxoenea Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:00etan lehen deialdia, 19:30ean bigarrena. Bertan besteak beste, ondorengo gaiak izango ditugu hizpide:

- 1.-2014ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2.-2015ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- 3.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4.-Galdera/erantzunak.

Martxoaren 26an, Laburbira

Zortzi film labur izango ditugu 80 minutu inguruko emanaldian. Filmak hautatzerakoan, hainbat irizpide izan dira kontuan, hala nola sortzaile berriei eta ibilbide luzekoei lekua egitea, filmetako genero eta gai aniztasuna... Proiektatuko diren filmak: "Hubert le Blonden azken hegaldia" (Koldo Almandoz), "Ein Land" (Igone Arreitunandia), "Aitona Mantangorria" (Kepa Errasti), "Zela Trovke" (Asier Altuna), "Arconada" (Asier Urbieto), "Don Miguel" (Kote Camacho), "Zaunk" (Ixo-ne Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Vera), "Zarautzen erosi zuen" (Aitor Arregi).

- Martxoak 26 osteguna.
- 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarrainiturgintza@gmail.com

BENTA TABERNA

MUS TXAPELKETA

BIKOTEAK: 20€ (TEL 943 369305)
MARTXOAREN 13AN, 22:00

SARIAK: 1) 6 TXULETA ETA 2 TXANPAIN BOTILA 2) 4 TXULETA ETA 2 ARDO BOTILA
3) 3KG KOSTILA ETA 2 ARDO BOTILA 4) 2 KG KOSTILLA ETA 2 ARDO BOTILA

OSASUN GIDA 2015



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapolak neurria eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2x1

PROGRESIBOETAN



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA



• Kirol masajea
• Masaje terapeutikoa
• Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

ORDUTEGIA BERRIA (EKAINERARTE):

asteartea	9.00 - 15.30
asteazkena	9.00 - 13.00 / 15.00 - 19.30
osteguna	9.00 - 13.30

ORDUTEGIZ KANPO UTZI MEZIA 943 11 09 54 TELEFONOAN



Öinutsik

☎ 943 11 09 54

- ✓ Azterketa Biomekanikoak / Plantilak
- ✓ Papilomak / Erreflexoterapia
- ✓ Kolagenozko infiltrazioa / Kiropodiak

Zubiaurrenea 2, Usurbil



Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatiakoak

Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA

aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea